


ZER
ALDIZKARIA

390n. zenbakia
2013 OTSAILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Bounty itsasontzia



**Landajuela,
Anton IV.**



IZADIA ZAINDU
Euskal toki-izenak
munduan eta Euskal edestia I

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2012-2013 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrifik
www.ibegrifik.com

LANDAJUELA, Anton, IV.



33.- TXIRRITXIRRIAK, KIRKILLAK

Txirritxirriak geure-geurek izaten ziran onein aldia etorten zanean. Agertzen ziranean, ba, Leurki-buruko basomoztura, landararik gabeko basora joaten gintzazan Olabbarri ta enparantza zarraren inguru-min-guruan bizi gintzanak, zomorro abeslarien billa; zirik berezienak eta ura Leurkin-go iturrian, eta atxurra etxean arturik joan be, egiten gintzazan.

Emea izaten zanean bertanbera izten genduan-eta, arra bazan txapelera, banaketa egitean ezpairik gabe beti-ta-beti.

Kirkil abestia entzuten ezan etxerik ezegoan, eta, eskolara betsopelpean eroaten genduzan non gorderik ezgendualako. Eskolara sartzean txapela erantsi bear genduan, txirritxirriak kolkoan zear zabaltzen genduazalarik. Alakoen batean gure maixua don Errafael-ek burura ekarten eban kirkillaren abestia non izaten zan, etorten zan araña eta, artu alekoak artzes orduan izaten ebazan zomorrondunak.

Aldi artan bai-egoan gizon bat, Bilbo-aldean gaxopeturik bere amagana etorria, Pedro abarketeruren etxetik eskola bitartean bizi zana, enparantza zarrean.

Gizon a, gaixo samarra izanik lanerako gai etzan-eta. Siarrustabeti-n eben baratzera joaten zan zer edo zer egiñik eguna emotera. Makiña bat kirkil eta txorikumak etxeko ate inguruak betarik eukazana. Bererengandik gauzarik asko ikasi genduan.

Kañabera arrakalduan sartzen ebezan kirkil abeslariak-eta; guk bere alaxe egiten genduan, egunetan bixi eiteazan uraza ta ardauz bustitako ogia emonik.

Gañeteik eta andi-andika esanik doguz. Igorre-ri buruzko gure orduko zerak, jostakisun eta bizitza. San Antonio-en aterpeak berba egin al ba-leu izango luke ainbat zer esanik. Burruka egitea eskolan ameztzen zan, San Antonio-n burutu.

34.- BOLA TA TXIRLO

Pedro Txato-ren etxean gaur egun jatokia dagon lekuan; Julitxu-nean bere bai, biak egozan enparantzan zarrean. Timoteo Atutxa eta Calistro-ren bitartean be ba-egoan, eta oneik galdurik gero, Txakolintegi-n laugarrena, besteak besteko bizi andirik izan ez baeban be.

Bolan inarduen danak eziran izaten besotsuak, baiña geienak bai, lanaren lanaz besoak kirioturik eukaizan-eta.

Diru-goserik ezan izaten, diru geiegirik ezan izaten-da. Ardoa, indarra eta lukikerien batzuk izaten ziran jokoaz ebatzi bear zirenak.

Kirtenetik eldurik, besoa betean jaurtizen zan bolea, eta eskubarru bere bai, txirlo txikia jotera.

Ai ene erri ezereztua! Igorrebaso-ko asto txikiak Santalutzi-ko andiak, errotak, kastorrerako in-txaurrak, gartzarao arrotazalak, txirikillak, zidarrrezko ogerleko zuria, kinkin, txirritxirri, bolak eta abar. Auzo errietatik eta auzokoak ez-tiranetatik biztale barrizko uriolea etorri dala dirudi. Batek bestea eztau ezagutzen. Etxe barriak pilloka egin dabez, errikoentzat baiño askoz bere geiago.

Ule-bizar-moztzalkek iru ziran; Basilio, Kasinto, Landajo; geroago baten Elezkano. Iru txikiaz asi nintzan ulea moztuten, eta zazpi bat txakur-randiz espartañak erosi, txikitoa txakur txiki bat izanik.

Urtubi bekoan egoan labeak, Katalin, Mañesi, Juliana ta Pepa-ri amaika ogi eder erre eustien, larunbatatan, labaondotik igarotzen giñanean pamitxa zatiak guri emoteko.

Agur, agur dagitziet lau labesudun andratxoai, bertiraun guztirako, eta altsudun bakarrak bezai erruki ta bemaioe betiko zoriona.

Olantxe joan zan gure mutiko-gaztaroa, azeri txikikeriak alde batera itxirik.

Amabost-amasei urtetako nintzanean etorri jatan niri be, etxetik urtenbearra, Artea izanik nire erri barria. Iruen bat kmko. Bidea Igorre-tik Artea-ra, lenik bere ibilirik nengoan bide aretan.

Udako egun kizkalak izan ziran, goizean goizik jagiten gintzazan, esneak eratsi eta jatekoa be emon, eta lanerako norbera be ondo gertuten zanean, buztartu eta danok joaten gintzazan, soloetara. Beiakaz bat ebillanean, atxurraz bestea, eta irugarrenak be izango eban zeri eldu ta zeri ekin.

Erriko enparantzaren ondo-ondoan egoan gure baserria eta, enparantza aretatik igaroten nintzatzuenian, ez neban izaten an ebiltzazan mutiko koskortuekin, jolasteko gogo andirik.

Udako zereginik aukerakoan, emen batzuk; Idak ebagi, batu, burdia betetan lagundu, eta etxera etortea izaten ba-zan, zeri edo ari ekinbearrean izaten gintzazan, jateko ta lo egiteko gelditzen gintzazan-da.

Ida ebaketa-lanak Baltzola-n da Murga aldapa-tuan genduzan. Eta euria zanean, barriz, zugatzperen batean erdi kikili gengoan lañoteak zer egingo eban jakin gurarik. Ez-genduan izaten ez eurirako ez eguzkirako, abarrez da idaz eginiko etxola txiroenik, etorrana etorten zalarik bizkarrean artu bear genduan. Erroi ta belak eta igitaia ziran eguneroko lagunak.

Gabaren illuna etorranean basoan bertan, edo-ta bidean ogi-zatiaz sagar bat jaten genduan eta, Baltzolan bizi ziranai biramon arte agur egiñaz basoa beraka etxeratzen gintzazan.

Etxean be ez-genduan izaten jaia egiteko gogo ta aukera egokirik. Amamak ekarrirako astokada andi bat, bi bai zarritan (artoa zan), buruak kendu, zuritu, babak alde batera ta lastoa bestera egiten genduan. Lan au ona etzanarren, zer izaten ete zan gurdia bete ida ustu et metagintza! Ogetaka burdi usten genduzan apaldu baño len, illa beteko kontua.

Uda aurreratuz izaten zan aldirik, ijito edo onein antz andino ziranak, erriz erri dindilindongo egitera etozanik: komediantek. Berandu apaltzen genuan-eta, areik ikustera joatea nai izaten genduanean, agurtza otoitu bear genduela-ta, makiña bat aitzakirik izaten eban gure amamak. Batzuetan, ba, joan, bestetzueta ez, alan joaten zan udea ta udagoiena.





Eta igande goizetan zer? Astoa neukan sasia lotorik, bera bete bedar ebagi eta etxeratzeko itxaroten eustala. Lana, lana ta lana, lana besterik etzegoan.

Esan dotan lez emon nebazan 19 urte arteko egunak. Emeretzi urteko nintzanean biurtu nintzan etxera, eguneroko alogera gaur drogeria, karlisten koartela izandakoan irabasten asi nintzan.

Emengo lana amaitu genduaneko, Bidebieta-n, Basauri-n eben lana nire bi nagusiak Jose Mari ta Jose Amorrortu-k, etxegintzan asteko. Ezdakit orain zenbak irabasten nebanik, baiña bazkaria ona ta ederra, mai-ganean erratellu andia indaba, urdai ta lukainkaz bete-betea; aren ondoren okela ta piper ugari arduaz lagundurik. Gozez il bainik izaten dan saiak okela barriaren ganean izaten dauan lakoxe orritza izaten genduan egunero, bosten bat errearen ordeko. Noraño joan geintikez, gaur egun, bost errealegaz, eguna lanean emon goseri bage, eta gabean etxer biurtzeko asmoz?

Idazki Deunak irakurtzean, aintzin batean izaten ziran alatz eta miraririk askogaz jabetzen gara, baiña beste bat emon geuk ikusia eta oraingo gizadi barri onek siñistu ezin dauana: bost errearen lapiko-babaz, lukainka ta urdaiz, ardau ta ogiz, okotzerano betetan gintzala.

Basauri-ko lana amaitu besterik ez, Zornotza-ra neukan deia, Forjas Baltzura joan naitean, da ara joan nintzan. Goizeko seiretatik eberdi osteko ordu biak arte, eta ordu bietatik gabeko amarrak arte izaten zan ango lana, aste batean goizez eta bestean arratsalde.

Goizetan ba-egoan tximistgurdia Durango, Bilbo ta Arrati-ra joan-etorritz ibiltan zana, eta ni bere, an joaten nintzan goizez nintzanetan. Arratsalde nintzanean, barriz, ez-neukan etxera non biurtzerik. Zer egin nagikean, alako ordu larrietan, amar km.tro-ko bidean etxera biurtzeko.

Arratsalde nintzan astelen batez, 40 ogerleko kolkoan arturik joan nintzan lanera, eta izan genduan, langille nagusiari lagun egiztala esanik, txirringuts barri-barria eroatera joaterik. 42 ogerleko ordaindu-eta, eskuan ne-balarik, bereren ondoan lanera, barriz bere.

Amarrak, gaubeko amarrak urratuten egozan da, ni larriak jota. Etorri izan ziran amarrak, txirrina eskuan arturik 10 kilometroko bidean etxera nentorren, txipi-txapa.

Txirrindun adiskide bat ba-neban, ez-nintzan iñoiz arenaren ganean jzarri, eta ni gixajo andia, txirrina eskuan etxeratu nintzan.

Gaberdiko 12ak ezker apalduta nengoan eta, txirrinean ikastea amets. Ostiko-pelotarako zelaya egoan etxondoan-da, ara joatea erabagi neban, ortzi argitsuan lekuko izarrak izanik. Ibili ta ibila, jausi ta zutitu, izerdiz bustirik emon nebazan goizalerañoko orduak.

Ala bearrez ikasi neban txirringutsan ibiltea, egunetan eta egunetan ogei kilometrotan joan-etorriak eginik. Zornotza-ra eroan nindun nagusiak Igorre-n lantoki barria eginik, eta lan urritasun andia egon zalarik, Igorre-n asi nintzan lanean gudaritzara joan artean.

(Jarraituko dau)

Afrikako ipuin/alegiak

Ienea ta untxia

Piztiak norki dirala, alegi asko dagoz eta onein elburua entzuten edo irakurten dabezenai laguntza emotea izaten da, gizaki lez obeak izan daitzezan. Barru estuko izatea, arrokeria eta norberekeria nastean agertzen dira Mozanbikoko alegi onetan.

Ienea ta untxia betiko lagunak ziran. Bien artean eginda, etxe bat euken eta gose-aldia etorri zanean, jatekoa irabazteko, euren emazteakaz eta umeakaz lan-billa joatea erabagi eben.

Untxia leoiaren etxera sartu zan sukaldari-lana egiteko, baiña ieneak lana billatu-arren, ez eban aurkitu. Ikusi eban, unxiak ondo jaten ebala eta loditu be egiten zala leoiaren ondakirikaz eta ienea bekaitzez beterik egoan. Untxia bere lan-lekutik kanpora botatea nai eban bera leku orretara sartzeko.

Bein baten leoia gaisotu egin zan eta egun batzuk, bat, bi, iru egun, igaro ziran eizara joan-ezirik. Ieneak, leoia gaisorik egoala entzun ebanean esan eban:

- Ba-dakit zer egin. Leoiak untxia jatea lortuko dot.- Joan zan leoiaren etxera eta atea jo eban:
- Sartu neiteke, leoi jauna?
- Bai, aurrera- esan eban gosekillik egoan leoiak.
- Agur, Errege aundiak!- esan eban ieneak eskuak alkar joaz.
- Bai aundiak gara, benetan! Zer nai dozu?
- Parkatu nire ezikera txarra!- esan eban ieneak. Parkatu, jauna. Zu gaisorik zengozala entzun neban eta erregea ikertzera etortea erabagi neban. Neure artean esan neban:
- Ezin dautsagu erregeari ilten itzi, osagaia zein dan geuk jakinda!




- Bai, egia da. Gaisorik nago- esan eban leoiak. Zer? Zuk dakizu nitzak osagaia zein dan?
- Ez nik. Ori dakiana zure serbitzaille dan untxia da. Berak osatu nau ni eta nire itauna da, zelan izten ete dauan zuk ainbeste neke igarotea, zu osatu bagerik.
- Argiago esan egizuz gauzak, iena!- esan eutson leoiak.
- Ori orrelantxe da. Nik dirødana da, untxiak ba-dakiala zure osagaia zein dan. Osatu be egin nau baten. Baiña untxi ori biotz txarrekoa da. Zuk miñak eukitea eta zu iltea nai dau. Maltzurra da! Nik ondo dakit zelakoa dan!

Leoiak deitu eutson untxiari eta onek an ienea ikusi ebanean, gauzak txarto joiazelata uste izan eban.

- Untxia! Zergaitik ez nozu ni osatzen? Zuk ondo dakizu zein dan bear dodan osagaia!- esan eban leoiak.
- Untxia! Ez zaite isillik geratu! Erantzun egizu! Zuk ba-dakizu osagaia! Eta neu be osatu nozu gaiso orretatik!- esan eban ieneak.
- Egia da? Bai ala ez? Ulu egin eban leoiak.
- Ni ez noa guzurrik esaten, jauna. Ba-dakit osagaia zein dan, baiña gatxa da jakitea osagai orren indarra nondik datorren- erantzun eban untxiak, belariak zorrotz ebazala.
- Zer izan leiteke gatxa, errege nazan onentzat? Zer? Ala arbuiatu egin gura nozu? itaundu eban basobaltzeko erregeak asarrez.
- Egia esan, gauza bildurgarria ta aitatzea bel- esan eban untxiak.
- Ai enel- esan eban ieneak: Entzun zer diròan onek. Zein osagaik kentzen dau indarra, aitatu be ez egiteko? Ba... neuk billatuko dot. Bear dana erregea osatzea da.
- Egizu berba oraintxe eta egiten ez badozu ez dozu emendik urtengo bizirik! Esan eban leioak asarratuta.
- Osagaiari indarra emoten dautsona, ienearen biotza da- erantzun eban untxiak, itxura baten samintasunez beterik.


Ieneak entzun ebanean bere biotza bear zala osagaiak indarra euki dagian, zutundu zan bizi-bizi eta iges egin eban urrengo zulotik. Leoiak bere atzean joan zan, baiña gaur arte ez dautso oratu. Ordurik ona ieneak eta leoiak gorrotoa dautsoe alkarrari.

† OLAZARtar Martin-ek



ERABILERA MASIBOKO ARMAK

**NOAM CHOMSKY. EDABIDEEN
ITXURAKERIETAN 10 ESTRATEGIA.**



1- ARRETA DESBIDERATZEAREN ESTRATEGIA

Gizarte kontrolaren jokamolde nagusiena arreta desbideratzea da. Onela: politikari eta ekonomialariek garrantzizko arazoetan derrigortutako aldaketak jendearen arretatik kanpo uztea. Uolde deituriko teknika erabiltzen dute informazio arin eta desbideragarri arreta etengabe beste aldera zuzenduz.

Arreta desbideratzearen estrategia oinarrizkoa da jendea benetako jakingarrien interesetik at kokatzeko: zientziaren arloan, ekonomian, psikologian, neurobiologian eta zibernetikan.

Jendearen arreta desbideratzearekin gizartearen benetako arazoetatik urruntzea bilatzen da, eta ordean garrantzirik gabeko gaiak jorratzea. Jakin-mina epeltzeko beste zerbaitetaz jardutea, pentsatzeko denbora indargabetuz, nola abereak landetxera zuzentzen diren. (Emendik artua: “Armas silenciosas para guerras tranquilas”).

2- ARAZOAK SORTZEA OSTERA IRTENBIDEAK ESKAINTZEKO.

Jokamolde “arazoa – erantzuna - konponbidea” deitua izan da. Arazoa naierara aurkezten da, jendearen erantzuna ernatu eta ondoren alde aurretik aukeratutako neurriak ontzat emanak izan daitezten. Adibidez, iri bortizkeria edatzen dute edo anditu dadin utzi, ala eraso makurrak antolatu, orrela jendeak askatasuna mugatuko duten segurtasun neurri eta eginbideak eska ditzan. Gainera, krisialdi ekonomikoak sortuta egoera ezinbestekoa bezala onartu izan dadin saiatzten dira eta orren ondoren eskubide sozialak eta zerbitzu publikoen desegiteak ontzat emanak izan daitezten.



3- MAILAZ MAILAKO ESTRATEGIA.

Joera onartezin bat onartu aal izateko naiko da pixkanaka eta urtez urte finkatzen joatea. 1980 eta 1990ko amarkadetan neoliberalismo ekonomikoaren baldintza berriak ezarri ziren. Estatua aalik eta gutxienekoa, pribatizazioak, prekarietatea, malgutasuna, langabezi orokortua, diru sarrera urriak. Aldaketa guzti aukerak batera ezarri izan balira matxinada sortuko lukete.


4- LUZAMENDUAREN ESTRATEGIA.

Jendeak onartezina lukeen erabaki bat onargarri bilakatzeko naiko da mingarri bezain bearrezkotzat aurkeztea; orain soilik zerbait gertagarri dena gerora ezarri aal izateko. Errazago baita gerora onartzea orain bertan baino. Batez ere aalegina ez delako oraintxe bertan egin bearrekoa. Jendeak itxaropen lausoz ontzat ematen baitu “biar zerbait ohea izango dugulakoan” eta jasatekoa ekidingo delakoan. Orrela jendeari tartea ematen zaio aldatetara egokitzeko eta gertatzen denerako etsi onez artzeko.

5- JENDEARI ADIN TXIKIKO BALITZ BEZALA ITZ EGITEA.

Jendeari zuzendutako iragarki geienek aur itxura nabarmeneko solasa, argudioak, pertsonaiak eta doinua erabiltzen dituzte, sarritan ia auldadearen mailakoa, entzulea adin txikiko edo ez-buruaskia balitz bezala. Ikusle-entzuleari gezurra sartzeko aritzen dira aur doinuz. Zergatik? Norbaiti amabi urte edo gutxiago balitu bezala itz eginez gero, unkitze erraza bidez, artzaileak ziur aski amabi urteko baten kritikotasun ezaren antzeko jarrera izango du. (Ikus: “Armas silenciosas para guerras tranquilas”).





6- AUSNARKETA BAINO EMOZIO GIROA SORTZEA.

Emozioak suspertzea oiko erabilpena da arrazoi-bidea lotuta utzi eta erabakiz kanpoko kritikotasuna moteldu batean geratzeko. Gainera, emoziotasuna lantzeak oarkabetasuna zabaltzen du eta orren bitartez bestelakoak sartzen dituzte: ideiak, asmoak, beldurrak, izuak, ertsatzeak eta jarrerak.

7- JENDEA EZJAKINTASUNA ETA KASKARKERIARA MUGATZEA.

Jendeak teknologia eta ainbat metodoen erabileraz ez ulertzea bilatzen da, kontrolatzeko aalmenik gabe menpeko erabiltzeko.

“Be mailako jendeari eskainitako ezkontza kalitatea are eta kaskarragoa izan bear du, orrela be eta goi mailako jendearen jakintza erabat ezberdin

izaten iraun dezan, eta beekoek ezinbestekotzat onartzeko”. (Ikus: “Armas silenciosas para guerras tranquilas”)

8- KASKARTASUNA ONARTZEKO JENDEA LIMURTZEA.

Jendeari sinestarazi bear zaio moda oneko dela axolagabe, kirtena eta ezjakina izatea.

9- NORBERAK BERE BURUA ERRUDUN AURKITZEA.

Norbanakoei sinestarazten diete euren egoera latza egokia dela, euren adimen, gaitasun edo ekinen mailakoa. Ekonomia sistemaren aurka asaldatu orde, norbanakoei bereari garrantzia kenduko diote errua eurengana itzuliz, bide depresiboaz ekinzabidea alboratuz. Ekintza barik ez da iraultzarik.



10- NORBANAKOAK EUREK BAINO OBETO EZAGUTZEA.

Azken berrogeita amar zear, zientziaren aurrerapen azkarrek jendea eta boteretsuek manciatzen dituzten gutxi batzuen arteko jakintza maila ezin bateratua egin dute. Biologia eta Psikologia Aplikatuaren “sistemak” gizakiaren jakintza aurreraturra eldu dela dirudi, bai ezaugarrietan zein ustetan. Sistema orrek gizakia bera baino obeto ezagutzea lortu du.

Geienetan sistemak norbanakoengan botere eta kontrol andiagoa du norberak bere gain baino.

Patxi Otamendik euskeratua.



BOUNTY ondatuta.

“SANDY”k ondatu eban Bounty itsasontzi apartekoa.



HMS Bounty munduko itxasontzi ezagunenetakariko dogu.

1787an ospetsu egin zan Tahiti itxaso aldetik ebillela, ingalendar ontzian sortutako matxinagaitik.

Gertaera ori liburuetan agertu zan, esate baterako Julio Vernek idatzitako elebarri baten, eta baita zinema arloan be. Mario Brando ta Richar Harrik antzestuarako ontziaren eduki bardin bardina egin zan, ontzi jatorrizkoa guztiz erreta gelditu zalako matxinadaren aztarnarik ez nabitzeagaitik.

Eduki bardiñaz agertu ostean Bounty ontzia turisten gozamerko biurto zan, jabe batzuen eskuetan erabilli ta gero. HMS Bounty Organizazion LIC ek bereganatu eban tourrak edo bisitaldiak antolatuteko asmotan, bide batez ontziaren istoria jakinerazi edota bere egiturea erakutsiaz.

Alango batean “Sandy” ekaitzak Bounty itxasontziaren gora bera guztiak amaitu ebazan. Iru palu-mastilekoa ta 55 metro luzerakoa zan itxasontzia, ondatu egin da, iñoan egunerokoak, Ipar Karolinako ondartzia inguruan. Gaur goizean agertu da



illotzik, Klaudine Christyan, 42 urtekoaren gorpua, gañerako 14 itxasgizon berreskuratuakin batera.

Gudaloste ontzia airetik aztertzen dabil aurkitu gurean Ipar-Karolinako Cabo Halterastik 145 kilometrora 63 urteko Robin Walbridge ontziburu desagertua.

Itxasontzi au eraiki zanezkerotik sarritan ikus leikean zinemaldietan. Esate baterako, azkenengoz, "Piratas del Caribe" pelikulean. Asiorean zama-ontzi lez erabilten zan, baña 1787an Ingalendar Armada jabetu zan "fruta de pan" (ezklaboentzako janari merkea) Thaitik Karibera eroateko.

Eta ementxe asten itxasontzi orren istori bitxia (ipuia)

Bounty itxasontzia, Cook kapitanaren ikasle Willian Bligen burupean, 1787 gabonetarako abiatu zan lengo eginbearra betetzera. Atera zan bide ta denpora neurtuekaz. Baña egualdiaren erruz, norabidea aldatu bearra izan eban, ibillaldia sano atzeratuz.

Tahitira, 1788ko urrian eldu zanean, frutuak eroan ezin ebezanez, luzetu egin eban bertako egotaldia. Bien bitartean, 44 itxasgizon ziranak, erriko emakumeakin artu emonetan asi ziran. Ainbesteraño ze euretariko bat Fetcher Cristyan, itxasontziko buruerdea, erritar gazte batekin eskondu zan.

1789an asi bear izan eben egin bearra betetan. Geienak, barriz, gogo txarrez.

Ain zuzen be, illebeta gerotxoago, matxina bat sortu zan itxasgizonen artean Kristian buru zala. Beronen alde 11 gizonek jokatu eben. Geienek, ordea, Bligenen alde. Alan da be gitxienak izan arren, Bounty itxasontzian gelditzea lortu eben Tahitira itzuliaz.

Bitartean Pitkan irlan ostondu ziran kutunakin batera, eta ingalendar ontziren batek arrapatzeko bildurrez, erre ta suntsitu eben ontzia.

MUNETXE 2012-10



IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI~IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA I



AURKEZPENA.

Munduan eta Europa onetan batez be, asko dira maltzurrezko jokoan dabizenak, euren norkerizko asmakuntzak garaipendu dagien eta Bereztasuneko legearen aurka diran lez, or sartzen gaitue gu, Euskalerria ezereztutea gure dabelako.

Erreza ez da izango Euskaldunak bizi egin gura dogulako eta geiago, gure arbasoak Jainkoari begira gai bizi oneri emon eutsen adierazpen ederragaz zor aundiak daukaguzelako.

Jainkoak, Nor izateko bialtzen gaitu gaitasun onetara eta gure arbasoai esker, gure nortasuneko sinismenak bereztasunean sustraituta dagozan lez, gaitz izango da JAINKOARI ta ARBASOAI uko egitea.

Olazar eta Uribetar Martinek agindu eustan lan onen mamia azaldu dagidala eta al dodazan alegiñak egingo dodaz, solas itzaldi onetatik arrazoiz beteta pozik urten daigun.

SARRERA.

Jaungoikoak, gure arimak gaiezko bizitz oneitara bialdu ebazanean, Berak ipinitako gai legeen artean ezarri ebazan eta guretzat ez gendun ezagutzen bizitza izan zalako, urduritasuneko bildur aundiagaz asi giñan egokitzen.

Aize, lur, ur, egazti, suge, narrazti, arrain, abere eta lorategi eder oneitan sartuta, laster konturatu gintzazan ardura izan zala bizi onek eskatzen euskun aurreneko ardatza eta beartuta

geratu gintzazan jakintzaren antolaketakaz arduratzeko.

Gaitasun onen legeak beartuta egiten genduzan gauza guztietan bizitzan irauteko, laster konturatu giñan, len, neurria zala arduradun nagusia, eta gizatasunarentzat or asten dira iker-lanak, daukaguzan jakitasunezko egarriak asetzeko, gaur arte eta gaurtik aurrera noz arte izango dan jakingabe: zergaitik itaun gure jakintza entseguz edo oarrez⁽¹⁾, azturazko bidean⁽²⁾, garaipendu daiten.

Orregaitik, bizi onen asiera eta gaurko denboratan, jakintzagaz bakandutasunezko aztura bidean erreztasun aundiak lortu, aukera arloetan neurri bardiñean gagoz, bakandu bear doguzan ditekeenak edo izan gaitasunetik beste ainbeste aurretik agertzen diralako, Jainkoak ipinitako legeen oldozmenean antza, Berak bereztutako legearen elburua betetea gura daualako, orekan bizi gindezan.

Bigarren: Bizi onen bearrezko ta etenbako egitarau ekiñaldietan, danon ordezkartizan eskubide bardiñak daukaguzalako, gure gizatutako arimak, baita⁽³⁾ garbi baten eta poz aundiz agertu gindezan,

ondorio lez beste garrantzi aundiko irudi bategaz estutu egiten gaitu, bizitzan bear dan ardatz nagusiaren Lotsagaz.

Au, Izadi onen ardatz nagusia biurtzen jaku.

Oiñarrizko ardatz oneitatik askatasunezko irudia bakarrik geratzen jaku aurkezteko.

Askatasunaren irudi au ez da: Jainkoak emon euskun agindu bat, gure Arimaren Baitari aukera emotea baño, gure ekiñaldiko gauzak on edo txarrezko bidetik egin daiguzan.

Orregaitik, nor beren eta danoren giza barren askatasun osoko egikeragaitik agertzen dana: gauzak on bidetik edo berezko legean egiten doguzanean nor beren sendimenduzko baita garbi ta pozez beterik agertzen da. Eta gauzak maltzurkerizko txarbidetik egiterakoan, norberen baita damu aundi baten, ezeren askatasunik gabe menderatuta agertzen da.

Jaungoikoak bere bereztasunezko lege aurrean, giza barrenaren minkortasunezko sentimentu orregaz bialtzen gaitu gaiezko lorategi eder oneitara, eta zorionsu edo oso txarto sentitzen gara danok, zu-



(1) Entzeguz edo oarrez=mètodo empírico. (2) Azturazko bidean=crecimiento sapiente. (3) Baita = conciencia

zentasunezko gauzak zeintzuk diran jakiten dogunean, txarto egin ezkerro.

Gizon emakume batzuri, diruaren lillur deiak gaiñezka egiten dautselako baiña, gaiezko izadi oni danok nor izanda emon bear dautsaguzan adierazpenetik ta nortasunaren baitan gaitz eginekoak emoten dauan damuari jaramon egin gabe, euren sasi norkerizko ziñezkintzakaz, giza eta errigizarteak bereztasunaren legezko jakintzan nastatu egiten dabez, ta mundu onek emon bear eban olatubageko itsas edo pakezko iruditik, ikaratutako elefante batek leiargintza⁽¹⁾ baten sartuta egin leuken ondamen irudia emoten dogu.

Deiadarti bat (alarmista) nazela irudituko jatzue batzuri.

Nire gizabarren edo baitaren egarriak baiña, zuzentasunaren zentzua eten bako eskaera baten eukinda ta gure Euskalerrri maite onen arrazoiakaitik minduta, ardura orreitan buru belarri sartuta nago.

Enaz edestilaria, elejakituna be ez, jakintzaren arlo orreik, euren teknika bidez edo ara-uz bete bear diralako.

Baiña, lenagoko edesti ziurtasunaren zentzuzko zeaztasun asko batutakoa bai. Orregaitik, errigizartearen edesti ta edestian izkuntzak emoneko toki izenak⁽²⁾ alkarren arteko ulermen baten azalduko dautsuedaz.

IDAZLAN ONEN ZATIAK.

I. ZATIA:

1. Izkuntza eta edesti arloan idazlari batzuren laguntza izan dot.

1.1. Zubiaga eta Legarreta Felix “Origen del Vasceuce”.

Beragaz egonda, Gazteleraz emon eustazan “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo”. Eta Euskeraz idatzita daukan: “Euskara ermeneutika” liburuetatik artuta.

Liburu oneik Internetetik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/Erroteta>


1.2. Nuñez eta Astraintar Luisek egin eban “El Euskera Arcaico” liburutik. Interneteko elbidea: www.txalaparta.com

1.3. Euzkadi Online: “LAPRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS” Interneteko elbidea: email@euzkadionline.com

1.4. “TOPONOMIA VASCA EN EUROPA”.

1.5. “Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado”. Selecciones Del Readers Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan Kromañon denborako giza jakituria eta gaurko giza geneak zelan dagozan.



(1) Leiargintza=cristaleria. (2) Toki-izenak = toponimia.



3. Orren frogagarri batzuk.
- 3.1. Kromañoi´en Izkuntza.
4. Homo Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, Zelako jendekuntzagaz osotu eben, ezagutzen ziran Afrika, Asia eta Europako lurraldeak ?.
5. “Munduko Gizatasunaren ETORKI edo GURASO ONDOKO” izatea.
6. Arri Aroan, Euskera´ren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro bardiñetik sortuak non?.
7. Mundu zabalean, Euskal Toki izenak eta Itzak.
 - 7.1. Afrika, Asia eta Europan, Euskal toki izenak.
 - 7.2. Maixu jakintsuak zer esaten dabe.
 - 7.3. Krutwig´tar Federikok esaten dauana.
 - 7.4. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.
 - 7.5. Lonbardian.
 - 7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Inglaterran Euskerazko toki izenak.
 - 7.7. Kaukasoon.
 - 7.8. Bereber inguruan.
 - 7.9. Boudatar Karl Aleman Euskalaria eta Errusiaren izkuntzan berariskoak zer esaten eban.

- 7.10. Iriondotar Mikel antropologo edo giza iztilariak.
- 7.11. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.
- 7.12. Europa, Asia eta Afrikaren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.
8. Europa, Asia ta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egoki-tuta edesti aurrean sartu orduko ?.

2. ZATIA.

1. Asia, Afrika eta Europako jendekuntzak.
2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Greziaren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri aldaren edesti laburra.
 - 2.1. Asiaren edesti laburra.
 - 2.2. Ejiptoren edesti laburra.
 - 2.3. Greziaren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta Indoeuropeotarrak?.
 - 2.5. Zergaitik euren erri aldak ?.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak ?.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Mauritarrak ?.
5. Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza leiñuen egokitasuna.
 - 5.2. Izkuntza ta toki izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etruskoaren agerkeraren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, gorrizko izen on.

3. ZATIA.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak eta erromatar ta latiñaren jaiotza.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

(1) *Berrizte-aldetik= desde la reforma*

4. ZATIA.

Gure Erdi Mendeko Euskalerrian errege ta jaun-
tzaren sorkuntzak.

Euskalerrriaren Oraingo Aldia edo ta Berrizte Al-
ditik⁽¹⁾ Frantzian 1.879an egin zan iraulketararte.

3. Euskalerrian iraulketatik gaur arte.
4. Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dautso Euskalerrriari ?.

5. EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.



Atuxa'tar Paul

Zornotza'n 2013'an Urtarrilla'ren 15'ean



Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

6	5	7	4		2			
2	8	3			6			7
	4	1	5	7	8	3		
	1							6
		9		5	4	2	8	1
				6			3	4
1	7		6	4	3			
			9					
			8			7		3

4	9	6	8	2	5	7	1	3
8	3	2	9	1	7	6	4	5
1	7	5	6	4	3	8	2	9
5	2	8	7	6	1	9	3	4
7	6	9	3	5	4	2	8	1
3	1	4	2	8	9	5	7	6
9	4	1	5	7	8	3	6	2
2	8	3	1	9	6	4	5	7
6	5	7	4	3	2	1	9	8

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Anai etxen da ezküntü
bükatü niz oain joaitera
ene opilaren egitera
Pariserat banüazü

Oi ama Eskualerri goxua
zutandik urrun triste banüa
adios gaixo etxen dena
adios Xiberua. (bis)

Pariseko bizitzia
lan kostüzüriaz bagiazü
bena berantzen zütadazü
zure berriz ikustia.

Oi ama Eskualerria...



Amaiurko monumentua